

2017

*Giza Eskubide eta
Bake Hezkuntzaren
Elkarteen foroa*



**Giza Eskubide eta Bake
Hezkuntzaren Elkarten foroa**
Foro de Asociaciones de Educación
en Derechos Humanos y por la Paz

[BAKE, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO PROGRAMA ETA PLANAK ABIATZEN DITUZTEN EUSKAL UDALEN INGURUKO IKERLANA]

2015ean egindako "Bizikidetza eta giza eskubideei lotutako plan, programa eta ekimenei buruzko ikerlana Euskal Autonomia Erkidegoko udal esparruan" txostenaren gaurkotzea

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4. orr.
2. IKERLANAREN ZIOA	7. orr.
3. IKERLANAREN HELBURUAK	12. orr.
4. METODOLOGIA	14. orr.
5. DATUEN ANALISIA	18. orr.
6. ERANSKINAK	49. orr.

Figura, taula eta grafikoen aurkibidea

	DESKRIPZIOA	PÁGINA
1. IRUDIA	Ikerlanaren lehen zioa.	9
1. TAULA	Ikerlanaren lehen zatian erabilitako tekniken laburpena eta bere xedea	16
2. TAULA	Udalerri eta proiektu kopuruaren eta 2005-2016 epean Eusko Jaurlaritzak emandako zenbatekoaren laburpena.	20
3. TAULA	Udalerri, irabazi asmorik gabeko erakunde eta proiektu kopuruaren eta 2014-2016 epean Eusko Jaurlaritzak (Elkarrekin Bonoak programaren bidez) emandako zenbatekoaren laburpena.	20
4. TAULA	Udalerri eta proiektu kopuruaren eta 2008-2016 epean Gipuzkoako Foru aldundiak emandako zenbatekoaren laburpena.	20
1. GRAFIKOA	2005-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso zituzten udalen kopuruan erregistratutako eboluzioa	21
2. GRAFIKOA	2005-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso zituzten proiektuen kopuruan erregistratutako eboluzioa	21
3. GRAFIKOA	2015-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso zituzten udalen eta proiektuen kopuruan erregistratutako eboluzioa	22
4. GRAFIKOA	20015-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso zituzten udalen, proiektuen eta inbertitutako euroen kopuruan erregistratutako eboluzioa	22
5. TAULA	Udalen zerrenda lurralde historikoaren arabera eta Eusko Jaurlaritzatik jasotako zenbatekoak	23
6. TAULA	Lurralde historikoen zerrenda eta Eusko Jaurlaritzatik jasotako zenbatekoak	26
5. GRAFIKOA	2014-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren Elkarrekin Bonoak programaren bidez diru-laguntzak jaso zituzten proiektuen kopuruan erregistratutako eboluzioa	27
6. GRAFIKOA	2014-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren Elkarrekin Bonoak programaren bidez inbertitutako euroetan erregistratutako eboluzioa	28
7. GRAFIKOA	2014-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren Elkarrekin Bonoak-Eusko Jaurlaritzako Udalak programaren bidez proiektuak egin diren udalerriak	28
8. GRAFIKOA	2008-2016 epean Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak jaso zituzten udalen kopuruan erregistratutako eboluzioa	29
9. GRAFIKOA	2008-2016 epean Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak jaso zituzten proiektuen kopuruan erregistratutako eboluzioa	29
10. GRAFIKOA	2005-2016 epean Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak jaso zituzten udal eta proiektuen kopuruan erregistratutako eboluzioa	30

	2008-2016 epean Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak jaso zituzten udal eta proiektuen kopuruan eta inbertitutako zenbatekoan erregistratutako eboluzioa	32
11. GRAFIKOA		
	Gipuzkoako udalen zerrenda eta Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotako zenbatekoak	33
7. TAULA		
	Galdetegiari erantzun dioten EAEko udalerrien zerrenda.	
8. TAULA		34
	Erakunde publikoen eginkizunari buruzko gaiak (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak).	35
12. GRAFIKOA		
	Nire udalerriko bizikidetza planari buruzko gaiak.	
13. GRAFIKOA		37
	Jardueren diseinu eta abiatzeari buruzko gaiak nire udalerrian.	
14. GRAFIKOA		38
	Jardueren diseinu eta abiatzeari buruzko gaiak nire udalerrian (burututako jarduerak).	
15. GRAFIKOA		40
	Erakundeen eginkizuna bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko programa eta planak sustatzerakoan.	42
9. TAULA		
	Udalaren eginkizuna bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko programa eta planak diseinatzerakoan eta abiatzerakoan.	43
10. TAULA		

1. SARRERA

SARRERA

Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen foroak (oraindik aurrera Foroak) aspalditik ari da udalek bake-kulturaren eta bizikidetzaren egoki baten sendotzean bete behar duten eta bete ahal duten paperari buruzko gogoeta egiten.

2015ean, Foroak ondoko gaiari buruzko ikerlan bat agindu zion Bakeola, Bizikidetzaren, Gatazka eta Giza Eskubideak erakundeari: *“Bizikidetzaren eta giza eskubideei lotutako plan, programa eta ekimenei buruzko ikerlana Euskal Autonomia Erkidegoko udal esparruan”*.

Batetik, ikerlan horren xedea 2005-2014 epean abiatutako bizikidetzari buruzko proiektu eta planak biltzea eta aztertzea izan zen.

Horren bidez ondokoak lortzeko:

- 2005-2014 epean bake, bizikidetzaren eta giza eskubideen inguruko diru-laguntzak jaso zituzten **udal eta proiektuen kopurua eta proiektu horien izaera ezagutzea** (hau da, bizikidetzari buruzko programak edo planak ziren ala ez jakitea), bai eta partida honetarako jasotako **zenbatekoak** ezagutzea ere.
- Ondoko datuak aztertzea: bizikidetzaren planak abiatu zituzten **udalen arteko harremana**; bizikidetzaren planaren baitan garatutako **jardueren ezaugarriak**; **burututako jardueren kopurua**; **jardueren eta jardueren arteko horiek jaso zituzten kolektiboen tipologia**, bai eta *“Euskadiko udal jardunerako orientabide etikoen”* ezarpen-maila.¹

Ikerlan horren emaitzak 2015eko irailaren 21ean aurkeztu ziren (Bakearen Nazioarteko Egunean), Donostian egindako ekitaldi ireki batean, eta udal esparruko langile teknikoei eta politikoei bereziki zuzendu zen.

2017an, Foroak enkargu berri bat egin dio Bakeolari helburu honi atxikia:

- **2015eko epea 2016ra arte zabaltzea**, udal eta bake, bizikidetzaren eta giza eskubideen gaiei lotutako proiektuen kopurua eta proiektu horien izaera, gaurkotzeko asmoz (hau da, bizikidetzaren programa edo planak ziren jakiteko), bai eta partida honen zenbatekoa gaurkotzeko ere.

¹ 2011n, Foroak aditu talde batekin elkarlanean egindako gogoeta baten ondorioz, Euskadiko udalek beharrezko zituzten orientabide etikoak bilduko zituen dokumentua egin zen. Jarraibide etikoak eta moralak biltzen dituen dekalogoak da. Jarraibide horiek Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan bizikidetzaren esparruan egiten den lana egituratu behar zuten (Dokumentua erantsi da).

- **Eusko Jaurlaritzaren laguntza-agindu berria integratzea** (Elkarrekin Bonoak programa, tokiko bizikidetzaren baitan), zeina 2014tik existitzen den, eta bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko jarduerak diruz laguntzen dituen, jarduerok euskal udaletan garatu daitezen.
- **18 udalerriren** bake, bizikidetza eta giza eskubideei buruzko hainbat udal jarduera modu kohesionatu eta koherentean planifikatzeko eta abiatzeko sortzen diren **zailtasunak eta aukerak aztertzea** (udalerrri batzuek bizikidetza-planak dituzte, eta beste batzuek, berriz, gai horri lotutako jarduera azpimarragarriak burutzen dituzte).

2. IKERLANAREN ZIOA

IKERLANAREN ZIOA

Foroak azken 12 urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko udal esparruan, bake, bizikidetza eta giza eskubideei buruz egindako jardunaren inguruko **informazioa edukitzeko** premia antzeman du.

Beharrian horrek hauxe ekarri du: 2005-2016 epean, diru-laguntza espezifikoa jaso zituzten bitartekoei, burututako proiektuei eta udal hartzaileei buruzko informazioa biltzea eta analizatzea, bai eta mota honetako ekimenak sustatzerakoan udalek izaten dituzten aukerak eta zailtasunak identifikatzea ere.

Hartara, ikerlana bi zatitan egituratu da:

Lehenengo zatia:

Udal hartzaileak, bake, bizikidetza eta giza eskubideak gaiei buruzko programak eta diru kopurua zehaztu eta aztertu dira. Horretarako, 2005etik 2016ra bitarte, Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta mankomunitateek gai honi buruzko programak garatzeko dituzten diru-laguntzen agindu eta ebazpenak aztertu dira. Hala, agindu eta ebazpenak izan dira bi informazio-iturri nagusiak.

Udalek **bi erakunde publikoren** bitartez jasotzen dituzte diru-laguntzak, gai honi buruzko jarduerak abiatzeko helburuarekin:

- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila (2003-2012) eta egun, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza (2013-gaur arte):

- Udalek eta bestelako udal entitateek, Euskal Autonomia Erkidegoan, bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko programak garatzeko diru-laguntzak.
- Bizikidetza-kultura berri bat eta gizarte-topaketa sustatzen dituzten proiektuak garatzeko diru-laguntzak, irabazi asmorik gabeko erakundeek eta tokiko entitateek modu bateratuan bultzatuak (Elkarrekin Bonoak programa, udal bizikidetzaren baitan).

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol eta Kanpo Ekintza Saila (2008-2011) eta egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko **Diputatu Nagusiaren** Saila (2012-gaur arte).

- Gipuzkoako udalek bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko udal proiektuak burutzeko diru-laguntzak dira.

Lehenengo zati honen gaurkotzearen harira, aurreko ikerlaneko datuei azken bi urteetako datuak gehitu zaizkie. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzaren (Elkarrekin Bonoak) **laguntzen agindu berria** aztertu da, zeina 2014tik existitzen den.

Agindu eta ebazpen guzti horien bidez ondokoak zehaztu dira: **udalak, proiektu kopurua**, epe horretan diru-laguntzak jaso dituzten **programen izaera (zeintzuk udalek abiatzen dituzten ala ez bizikidetza-planak)** eta proiektu horiek **jasotako zenbatekoa**.

Horrela **hiru elementu nagusi** zehaztu dira, hiru elementu horiek, hain zuzen, ikerlanaren lehen zatia osatzen dute:

- Diru-laguntzak jaso dituzten udalak eta bestelako udal erakundeak.
- Udal bakoitzean garatutako bake, bizikidetza eta giza eskubideen **programa kopurua**.
- Diru-laguntzen **zenbatekoa**.

1. IRUDIA: Ikertutako lehen helburua



Bigarren zatia:

2015ean egindako ikerlanean bizikidetza-plan bat burutu zuten udalerrien datuak aztertu ziren. Hala, bizikidetza-plan bat ezarri zuten udalek bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiei lotutako balioen aldeko apustu sendoa egin zuten udal-esparruan (modu egonkorrean, koordinatuan, eta abar).

Bizikidetza-planak abiatuta zituzten udalak aukeratzekoan, Foroak planari buruz duen kontzeptu edo irizpidea erabili zen:

- Udal-plan bat egin aurretik, udalerrri horretako bizikidetza-errealitatearen diagnostikoa egin behar da.
- Udal plan batek, gutxienez, bi urteko lan-plana diseinatu behar du.
- Udal plan batek lan-ildo bat baino gehiago aurkeztu behar ditu.

Lantalde ikertzailearen landa-azterketak hauxe ondorioztatu zuen, aurreko ikerlanean erauzitako datuekin batera:

- Bizikidetza-planak bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko jarduerak egituratzeko sortu ziren. Denboraren poderioz, zenbait udalerritan, zentzu hori galdu egin dute edo lausotu egin da.
- Badira Foroak zehaztutako hiru baldintzak betetzen ez dituzten udalerririk, bat edo bi betetzen dituzten arren; halere, horietako udalerririk batzuek inplikazio handia, apustu iraunkorra eta gai hau jorratzeko modu kohesionatua erakutsi dituzte.
- Beste udalerririk batzuetan terminoak beste esanahi bat hartu du, eta bizikidetza-planaz ari direnean, lan-ildo bereko hainbat jarduera garatzeaz ari dira (esaterako, bitartekotza komunitarioa edo memoria hurbila...).
- Erakundeen aldetik ez dago bizikidetza-plan ezberdinak kohesionatuko dituen irizpiderik. Ondorioz, udalerririk bakoitzak bere modu eta estiloarekin gobernatzen du bizikidetza-plana.
- Zenbait udalerririk esaten dute bizikidetza-plana garatu dutela, bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko jarduerak egituratu gabe eduki arren.

Bizikidetza-planen egungo errealitatea aintzat hartuta, bigarren zati honetan, **18 udalek bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaien inguruko udal**

jarduerak modu kohesionatuan eta koherentean planifikatu eta abiatzerakoan antzematen dituzten aukerak eta zailtasunak aztertu nahi dira, bizikidetza-planak eduki ala ez kontuan hartu gabe.

Horretarako zerrenda bat osatu da udal garrantzitsuenekin, gai honetan egin duten lana eta apustua nabarmentzekoak baitira. Behin zerrenda osatuta, 18 udalei galdetegi bat eman zaie.

Txostenaren bigarren zatian proposatutako gaiak zehaztuko dira, eta erregistratutako informazioa ahalik eta zabalago bilduko da, gai honi buruzko zenbait ondorioekin batera.

3. HELBURUAK

HELBURUAK

Txosten honen xedea ondoko gaien inguruko informazioa biltzea, araztea, sintetizatzea eta aztertzea da:

- 2005-2016 epean diru-laguntzak jaso dituzten **udalak, proiektu kopurua eta programen izaera (zeintzuk udalek abiatzen dituzten planak eta zeintzuk ez), bai eta horretarako jasotako zenbatekoa.**
- **18 udalek** bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaien inguruko udal jarduerak modu kohesionatuan eta koherentean planifikatu eta abiatzerakoan antzematen dituzten **aukerak eta zailtasunak.**

4. METODOLOGIA

METODOLOGIA

Ikerlan hau egiteko ondoko urrats metodologikoak eman dira:

- **Eusko Jaurlaritzaren Laguntzen (2005-2016)** aginduen ebazpenak analizatzea eta berrikustea.
 - 2005-2016 epean, Euskal Autonomia Erkidegoan, udalerriek eta bestelako udal erakundeek bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiari buruzko programak garatzeko laguntzak.
 - Bizikidetza-kultura berri bat eta gizarte-topaketa sustatzen dituzten proiektuak garatzeko diru-laguntzak, irabazi asmorik gabeko erakundeek eta tokiko entitateek modu bateratuan bultzatuak (Elkarrekin Bonoak programa, udal bizikidetzaren baitan, 2014-2016).
- **Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzen (2008-2016)** aginduen ebazpenak berrikustea eta aztertzea.
- Haien udalerrietan bake, bizikidetza eta giza eskubideei buruzko programak burutzen dituzten udal garrantzitsuenetako eragile politiko eta teknikoei bidalitako galdetegia egitea eta aztertzea.
- Behin betiko dokumentua erredaktatzea.

Prozesu analitiko horrek guztiak ahalbidetu du EAEko udalerriek bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaien inguruan sustatutako jardueren mapa diseinatzea.

Jarraian, ikerlanaren lehenengo fasean erabilitako teknikak bilduko dira modu grafikoan. Horretaz gainera, teknika horiek zein helbururekin erabili diren zehaztuko da.

1. TAULA: Ikerlanaren lehen zatian erabilitako tekniken laburpena eta bere xedea

	TEKNIKA	HELBURUA
KUANTITATIBOA	Data basea	Udalerriaren errealitatearen inguruko informazio sistematizatua jasotzea, hainbat esparrutako informazioa, eta bereziki gai honen inguruan lantzen ari diren programa eta erakundeen informazioa.
	Hustuketa bibliografikoa	Harremana duten zenbait gairen ezagutza zabaltzea, bai eta diseinatutako analisia ulertzeko abiapuntu den markoaren inguruko ezagutza ere zabaltzea.

ANALISI KUANTITATIBOA

Hainbat udalek burututako esperientziei buruzko informazio ematen duten datuak dira. Horretarako bi iturri erabili dira: batetik, **bigarren mailako iturriak** (laguntzen aginduen argitalpenak, hala Eusko Jaurlaritzarenak nola Gipuzkoako Foru Aldundiarenak²), horien bidez aipatutako errealitatearen ezagutza objektiboa, sistematikoa, frogagarria, neurgarria eta erreplikagarria eskuratu dugu; bestetik, informazioa biltzea, berriaz egindako **fitxa estandarizatuen** bitartez.

18 udaletako langile politiko eta teknikoek bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaien inguruko udal jarduerak modu kohesionatuan eta koherentean planifikatu eta abiatzerakoan antzematen dituzten aukera eta zailtasunei buruzko informazioa biltzeko galdetegi bat diseinatu da.

Lehenengo une batean, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen aginduak aztertu dira: Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta bestelako udal entitateek bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruz garatutako programentzako diru-laguntzen agindua, 2005etik 2016ra, eta bizikidetza-kultura berri bat eta gizarte-

² Ebazpenak "Eranskinak" atalean bilduko dira.

topaketa sustatzen dituzten proiektuak garatzeko diru-laguntzak, irabazi asmorik gabeko erakundeek eta tokiko entitateek modu bateratuan bultzatuak (Elkarrekin Bonoak programa, udal bizikidetzaren baitan).

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008tik 2016ra argitaratutako laguntzen aginduak ere aztertu dira. Agindu horien helburua hau da: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen eta udalerria baino lurralde-eremu handiagoko erakundeen bake, bizikidetzeta eta giza eskubideei buruzko proiektuei diru-laguntzak ematea.

Diru-laguntza horien ebazpenen analisiaren ondorioz, udalerrien errealitatera gerturaztea lortu da, eta antzekotasunak eta ezberdintasunak antzeman dira, garatutako proiektu eta planen araberakoak, lurralde historikoaren araberakoak..

Bestalde, Foroak udaletako arduradunen kontaktuak utzi dizkigu, ikerlan hau egiten ari zela jakin zezaten. Horrekin batera, udaletako arduradunei gurekin kolaboratzeko eskatu diegu. Udaletara egindako lehen hurbiltze hau e-posta bidez egin da, eta kasu batzuetan, telefonoz.

Horretaz gainera, udalerrri hauei laguntzen dieten aholkularitzekin ere jarri gara harremanetan, bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen arloan garatzen ari den jardunaren ikuspegi osatuagoa baitute. Hurbiltze hori Foroaren bileretan, e-posta bidez eta telefono bidez egin da.

5. DATUEN ANALISIA

DATUEN ANALISIA

LEHENENGO ZATIA

Jarraian, 2005-2016 epean, Euskal Autonomia Erkidegoan, udalerriek eta bestelako udal erakundeek bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko programak garatzeko laguntzen analisiaren bidez bildutako datuak aurkeztuko dira.

Txosten honen ikerketa-epean laguntzak jasotzeko bi bide antzeman dira. Batetik, **Eusko Jaurlaritzak** emandako laguntzak, eta bestetik, **Gipuzkoako Foru Aldundiak** ematen dituenak.

2003an, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak estreinakoz argitaratu zuen laguntza-ildo bat bake eta giza eskubideen gaien inguruan jarduerak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsat. Halere, ikerlan honek azken 12 urteak izango ditu aztergai (2005-2016).

2014an, Lehendakaritzak estreinakoz argitaratu zituen bizikidetza-kultura berri bat eta gizarte-topaketa sustatzen dituzten proiektuak garatzeko diru-laguntzak, irabazi asmorik gabeko erakundeek eta tokiko entitateek modu bateratuan proiektuak egin ditzaten (**Elkarrekin Bonoak** programa, udal bizikidetzaren baitan).

2008an, Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak ondoko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartu zituen: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen eta udalerria baino lurralde-eremu handiagoko erakundeen bake, bizikidetza eta giza eskubideei buruzko proiektuak garatzeko diru-laguntzak.

Eusko Jaurlaritzak 2005-2016 epean emandako diru-laguntzen analisiaren harira, **95 udal zehaztu du, Bizkaiko Lurralde Historikoko 4 mankomunitate eta Arabako Foru Aldundia, eta guztira tokiko 100 erakunde; hots, 764 proiektuk jaso dituzte diru-laguntzak eta 3.529.489,10 € inbertitu dira.**

Bestalde, bizikidetza-kultura berri bat eta gizarte-topaketa sustatzen dituzten proiektuak garatzeko diru-laguntzetan, irabazi asmorik gabeko erakundeentzat eta tokiko entitateentzat direnak (**Elkarrekin Bonoak programa, udal bizikidetzaren baitan, 2014-2016**), **18 udal eta 16 erakunde zehaztu dira, hau da, guztira 21 proiektuk jaso dituzte diru-laguntzak eta 113.995 € inbertitu dira.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak **29 udalei eman dizkie diru-laguntzak, guztira 134 proiektu jaso dituzte diru-laguntzak, alegia, 1.022.469,56€** inbertitu dira bederatzi urtetan (2008-2016).

2. TAULA: Udalerri eta proiektu kopuruaren eta 2005-2016 epean Eusko Jaurlaritzak emandako zenbatekoaren laburpena.

Laburpena epea 2005-2016

Udalerri kopurua: **100**

Proiektu kopurua: **764**

Diru-laguntzak eurotan: **3.529.489,10 €**

3. TAULA: Udalerri, irabazi asmorik gabeko erakunde eta proiektu kopuruaren eta 2014-2016 epean Eusko Jaurlaritzak (Elkarrekin Bonoak programaren bidez) emandako zenbatekoaren laburpena.

Laburpena epea 2005-2016

Udalerri kopurua: **18**

Erakunde kopurua: **16**

Proiektu kopurua: **21**

Diru-laguntzak eurotan: **113.995 €**

4. TAULA: 2005-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso zituzten udalen, proiektuen eta inbertitutako euroen kopuruan erregistratutako eboluzioa

2008-2016 epearen laburpena

Udalerri kopurua: **29**

Proiektu kopurua: **134**

Diru-laguntzak eurotan: **1.022.469,56 €**

EUSKO JAURLARITZA:

EUSKO JAURLARITZA - UDALAK


1. GRAFIKOA: 2005-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso zituzten udalen kopurua erregistratutako eboluzioa

DIRU-LAGUNTZAK JASO DITUZTEN UDALAK



2005ean, **23** udalek jaso zituzten diru-laguntzak proiektuak eta jarduerak burutu zituzten bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen esparruan. **2016an, inoiz baino udal gehiago aurkeztu ziren, guztira 62.**


2. GRAFIKOA: 2005-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso zituzten proiektuen kopurua erregistratutako eboluzioa



Aztertutako 12 urteetan, **764 proiektu** jaso dituzte diru-laguntzak proiektuak abiatzeko bake, bizikidetza eta giza eskubideak arloan.


2005ean, **32 proiektu** jaso zituzten diru-laguntzak; 2009an, berriz, **71 proiektu**. 2016an, hazkunde nabarmena antzeman da, inoiz baino proiektu gehiagok jaso baitituzte Eusko Jaurlaritzaren laguntzak, guztira **91 proiektu**.

3. GRAFIKOA: 2015-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso zituzten udalen eta proiektuen kopuruan erregistratutako eboluzioa



Diru-laguntzak jaso zituzten udalen eta proiektuen kopuruan erregistratutako eboluzioaren datuen harira, datuok adierazten dute udal askok proiektu bat baino gehiago aurkezten dutela.

4. GRAFIKOA: 20015-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso zituzten udalen, proiektuen eta inbertitutako euroen kopuruan erregistratutako eboluzioa



Eusko Jaurlaritzak 12 urteetan inbertitu dituen euroak nahikoa modu egonkorrean mantendu dira, 2005ean izan ezik. 2016an, bestalde, udal eta proiektu kopuruak nabarmen egin du gora.

5. TAULA: Udalen zerrenda lurralde historikoaren arabera eta Eusko Jaurlaritzatik jasotako zenbatekoak

BIZKAIKO UDALAK 2005-2016

	UDALA	JASOTAKO ZENBATEKOA
1	Abanto-Zierbena	52.990,82 €
2	Alonsotegi	4.000,00 €
3	Amorebieta-Etxano	119.511,43 €
4	Amoroto	515,59 €
5	Arrigorriaga	24.993,74 €
6	Atxondo	474,14 €
7	Bakio	1.987,53 €
8	Balmaseda	95.853,49 €
9	Barakaldo	28.074,22 €
10	Barrika	3.079,84 €
11	Basauri	18.971,00 €
12	Berango	5.211,73 €
13	Bermeo	1.500,00 €
14	Berriz	8.426,32 €
15	Bilbao	113.414,47 €

16	Durango	81.533,66 €
17	Elorrio	2.031,28 €
18	Erandio	81.758,62 €
19	Ermua	169.122,07 €
20	Etxebarri	81.791,36 €
21	Fruiz	914,54 €
22	Galdames	1.151,67 €
23	Gatika	1.170,34 €
24	Gautegiz-Arteaga	9.130,89 €
25	Gernika-Lumo	142.251,84 €
26	Getxo	66.244,85 €
27	Gueñes	8.367,12 €
28	Igorre	2.531,24 €
29	Larrabetzu	15.542,13 €
30	Leioa	230.765,18 €
31	Lekeitio	169.529,31 €
32	Lemoa	13.439,15 €
33	Lemoiz	2.237,21 €
34	Mancomunidad Arratia	712,09 €
35	Mancomunidad de Lea Artibai	285,17 €
36	Mancomunidad Txorierri	31.669,03 €
37	Mancomunidad de servicios Uribe Kosta	1.775,36 €
38	Markina	3.399,25 €
39	Maruri-Jatabe	8.874,72 €
40	Mungialde	98.133,72 €
41	Muskiz	5.357,67 €
42	Orozko	3.349,29 €
43	Ortuella	26.500,00 €
44	Otxandio	69.370,33 €
45	Portugalete	112.156,59 €
46	Santurtzi	22.505,63 €
47	Sestao	12.400,00 €
48	Sopelana	36.500,00 €
49	Zalla	11.141,66 €
50	Zeberio	3.588,59 €
GUZTIRA		2.006.235,88 €

GIPUZKOAKO UDALAK 2005-2016

	UDALA	JASOTAKO ZENBATEKOA
1	Andoain	9.329,10 €

2	Astigarraga	14.000,00 €
3	Azkoitia	1.505,70 €
4	Azpeitia	74.506,21 €
5	Beasain	12.890,19 €
6	Belauntza	1.500,00 €
7	Bergara	1.779,27 €
8	Donostia-San Sebastián	294.902,79 €
9	Eibar	17.060,39 €
10	Elgeta	73.784,32 €
11	Elgoibar	62.980,65 €
12	Eskoriatza	9.280,16 €
13	Gaztelu	1.300,00 €
14	Getaria	2.965,78 €
15	Hernani	52.330,74 €
16	Hondarribia	25.835,23 €
17	Ibarra	1.000,00 €
18	Irun	129.517,99 €
19	Itsasondo	621,00 €
20	Lasarte-Oria	5.774,38 €
21	Leaburu-Txarama	2.500,00 €
22	Lazkao	1.821,90 €
23	Legorreta	1.400,00 €
24	Mutriku	3.764,25 €
25	Olaberría	1.023,18 €
26	Oñati	10.350,00 €
27	Ordizia	19.602,89 €
28	Orexa	1.300,00 €
29	Orio	16.740,44 €
30	Ormaiztegi	1.100,00 €
31	Rentería	26.482,57 €
32	Soraluze	16.677,05 €
33	Tolosa	16.628,83 €
34	Urnieta	10.123,85 €
35	Urretxu	23.834,86 €
36	Villabona	2.186,20 €
37	Zarautz	225.038,33 €
38	Zestoa	1.182,66 €
39	Zumaia	5.435,56 €
40	Zumarraga	14.451,27 €
GUZTIRA		1.194.507,74 €

ARABAKO UDALAK 2005-2016

	UDALA	JASOTAKO ZENBATEKOA
1	Agurain/Salvatierra	70.500,00 €
2	Alegria-Dulantzi	860,80 €
3	Amurrio	90.034,05 €
4	Ayala	730,04 €
5	Campezo	7.686,28 €
6	Llodio	132.195,44 €
7	Valdegovia	1.441,57 €
8	Vitoria-Gasteiz	10.575,28 €
9	Yecora	4.722,00 €
	BESTELAKOAK	JASOTAKO ZENBATEKOA
10	Arabako Foru Aldundia	10.000,00 €
GUZTIRA		328.745,46 €

6. TAULA: Lurralde historikoen zerrenda eta Eusko Jaurlaritzatik jasotako zenbatekoak

LURRALDE HISTORIKOA	JASOTAKO ZENBATEKOA
BIZKAIKO UDALAK	2.006.235,88 €
GIPUZKOAKO UDALAK	1.194.507,74 €
ARABAKO UDALAK	328.745,46 €
GUZTIRA	3.529.489,08 €

EUSKO JAURLARITZA:


ELKARREKIN BONOAK PROGRAMA

Elkarrekin Bonoen bitartez, bizikidetzak-kultura berri bat eta gizarte-topaketa sustatzen dituzten proiektuek diru-laguntzak jasotzen dituzte, proiektuok, hain zuzen, irabazi asmorik gabeko erakundeek eta tokiko entitateek modu bateratuan bultzatzen dituztenak dira.

Elkarrekin Bonoak programaren laguntzak aktibatzen oinarritzeko premisa hauxe da: erakunde onuradunaren (euskal elkartearen sareko irabazi asmorik gabeko erakundea) eta udalaren artean adostasuna izan behar da proiektu bat garatzeko elkarrekin, zeina programa honen esparru tematikoan sartu beharko den.

Proiektuen erakunde hartzaileek (udalak) ez dute proiektuari dagokion dirua jasoko. Horretaz gainera, erakunde onuradunari diru kopuru osoaren %10 eman beharko die gutxienez.


5. GRAFIKOA: 2014-2016 epean Eusko Jaurlaritzaren Elkarrekin Bonoak programaren bidez diru-laguntzak jasotzen proiektuen kopuruan erregistratutako eboluzioa



2014tik 2016ra, erakundeek eta udalek **21 proiektu** burutu dituzte elkarlanean. Bizkaia da diru-laguntza ildo honetatik sortutako proiektu gehien jasotzen dituen


lurralde historikoa, guztira 15. Araban eta Gipuzkoan, bestalde, 4 proiektu egin dira 3 urte hauetan.

6. GRAFIKOA: 2014-2016 epean Eusko Jurlaritzaren Elkarrekin Bonoak programaren bidez inbertitutako euroetan erregistratutako eboluzioa



2014an, 26.455€ inbertitu ziren, 2015ean, berriz, zenbatekoak behera egin zuen, 24.120€. **Zenbateko hori nabarmen hazi da 2016an, 63.420€ inbertitu baitira.**


GRÁFICO 7: 2014-2016 epean Eusko Jurlaritzaren Elkarrekin Bonoak-Eusko Jurlaritzako udalak programaren bidez proiektuak burutu diren udalerriak



Eusko Jaurlaritzako Elkarrekin Bonu Programa-udalak ekimenaren bidez burututako proiektuak 18 udalerritan garatu dira, 2014tik 2016ra bitarte (11, Bizkaian; 4, Gipuzkoan eta 3, Araban).

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA:


8. GRAFIKOA: 2008-2016 epean Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak jaso zituzten udalen kopuruan erregistratutako eboluzioa.



2008an, **7** udalek jaso zituzten diru-laguntzak bake eta giza eskubideen esparruko proiektu eta jarduerak garatzeko. 2016an, analisi honen azken urtean, **20** udalek jaso zituzten diru-laguntzak. Urte horretan, gainera, inoiz baino udal gehiago aurkeztu ziren diru-laguntzetara.

9. GRAFIKOA: 2008-2016 epean Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak jaso zituzten proiektuen kopuruan erregistratutako eboluzioa


DIRU-LAGUNTZAK JASO DITUZTEN PROIEKTUAK



Aztertutako 9 urteetan, **134 proiektu** jaso dituzte diru-laguntzak bizikidetza, bake eta giza eskubideen gaiei lotutako proiektuak abiatzeko.

2008an, **10 proiektu** jaso zituzten diru-laguntzak. Aurkeztutako proiektu kopurua nahikoa egonkor mantendu da. 2014an aurkeztu ziren proiektu gehien, guztira **21 proiektu**.

10. GRAFIKOA: 2005-2016 epean Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak jaso zituzten udal eta proiektuen kopuruan erregistratutako eboluzioa




Aurkeztutako proiektu eta udal kopuruaren eboluzioaren harira, eboluzio hori antzekoa da aurkeztutako udalei dagokienez eta onartutako proiektuei dagokienez, 2015 eta 2016 urteetan izan ezik, urte horretan proiektu kopurua eta diru-laguntzak jaso dituzten kopurua antzekoa izan baitzen.

2014 eta 2016 urteetan inoiz baino proiektu gehiago aurkeztu ziren, eta 2016an, inoiz baino udal gehiago aurkeztu ziren diru-laguntzetara.

Jarraian, proiektu, udal eta inbertitutako euroen eboluzioa aurkeztuko da, urtez urte. Inbertsioaren harira, 2011 eta 2012 urteetan nabarmen egin zuen behera, baina hurrengo urteetan gora egin zuen. 2016an, inoiz baino inbertsio handiagoa egin zen (180.000€).

11. GRAFIKOA: 2008-2016 epean Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak jaso zituzten udal eta proiektuen kopuruan eta inbertitutako zenbatekoan erregistratutako eboluzioa



Ondoko taulak Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzetara 2008-2016 epean aurkeztutako udalak eta jasotako diru kopurua aipatzen ditu. Udalok bake, bizikidetzeta eta giza eskubideak esparruko planak eta proiektuak burutzeko asmoz aurkeztu ziren.

7. TAULA: Gipuzkoako udalen zerrenda eta Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotako zenbatekoak.

2008-2016 EPEKO UDALAK

	UDALAK	JASOTAKO ZENBATEKOA
1	Andoain	40.875,33 €
2	Aretxabaleta	1.500,00 €
3	Arrasate	5.790,11 €
4	Astigarraga	6.040,00 €
5	Azpeitia	72.637,97 €
6	Beasain	10.227,60 €
7	Donostia-San Sebastián	77.429,15 €
8	Eibar	3.425,10 €
9	Elgoibar	89.307,76 €
10	Eskoriatza	19.106,55 €
11	Gabiria	31.225,74 €
12	Getaria	30.443,85 €
13	Hernani	20.143,52 €
14	Hondarria	44.775,39 €
15	Irun	94.025,43 €
16	Lasarte-Oria	32.312,55 €
17	Lazkao	6.040,00 €
18	Legazpi	10.094,77 €
19	Orio	44.588,44 €
20	Ormaiztegi	603,98 €
21	Renteria	40.002,09 €
22	Soraluze	7.308,40 €
23	Tolosa	43.912,96 €
24	Urnieta	39.575,25 €
25	Urretxu	9.297,81 €
26	Villabona	7.666,28 €
27	Zarautz	229.798,22 €
28	Zumarraga	4.315,30 €
GUZTIRA		1.022.469,55 €

BIGARREN ZATIA

Bigarren zati honetan 18 udalerriri bake, bizikidetza eta giza eskubideei buruzko hainbat udal jarduera modu **kohesionatu eta koherentean planifikatzeko eta abiatzeko sortzen zaizkien zailtasun eta aukeren analisisan** bildutako datuak aurkeztuko dira (udalerrri batzuek bizikidetza-planak dituzte, eta beste batzuek, berriz, gai horri lotutako jarduera azpimarragarriak egiten dituzte).

Horretarako, zerrenda bat osatu da gai honen inguruan egiten duten lanagatik eta apustuagatik nabarmenak diren udalerriekin. Behin zerrenda eginda, 18 udalerrri aukeratu dira eta udalerrri horiei galdetegia entregatu zaie. 18 udalerrri horietatik 15ek erantzun diote galdetegiari: Araba (1), Bizkaia (6) eta Gipuzkoa (8).

8. TAULA: Galdetegiari erantzun dioten EAEko udalerrien zerrenda.

UDALERRIA	
Araba	
1	Laudio
Bizkaia	
2	Amorebieta-Etxano
3	Bilbao
4	Etxebarri
5	Gernika
6	Leioa
7	Portugalete
Gipuzkoa	
8	Azpeitia
9	Errenteria
10	Hernani
11	Lasarte
12	Orio
13	Tolosa
14	Urnietta
15	Zarautz

Emandako galdetegiak³ bi zati ditu. Lehenengo zatian, ondoko gaietako buruzko informazio kuantitatiboa biltzen da (1-4 eskalan, 1ek "batere ados" adierazten du eta 4k "erabat ados):

³ Dokumentua erantsi da.

- Erakunde publikoen eginkizuna (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak).
- Jarduerak diseinatzea eta abiatzea nire udalerrian.

Bigarren zatian, gai hauei buruzko informazio kualitatiboa jasotzen da:

- **Bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko programa eta planak sustatzerakoan mantendu eta hobetu beharreko aspektuak**, erakundeen eginkizunaren harira (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak).

- **Bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko programa eta planak diseinatu eta abiatzerakoan mantendu eta hobetu beharreko aspektuak**, udalerrien eginkizunaren harira (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak).

Ondoko lerroetan aipatutako gaiak aztertuko dira xeheki, eta erregistratutako informazioa ahalik eta zabalago jasoko da, ondorio garrantzitsuenekin batera.


Jarraian datozen grafikoaren bidez galdetegiaren **lehenengo zatian** bildutako datuak aurkezteko dira:

- Proposatutako gai bakoitzari 15 udalerriek emandako batez besteko puntuazioa (guztira).
- Udalerriek emandako batez bestekoa, lurralde historikoaren arabera (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa).

Jarraian udal teknikariei edota erakundeei egindako galdetegietatik erauzitako emaitzak aurkeztuko dira:

ERAKUNDE PUBLIKOEN EGINKIZUNARI BURUZKO GAIK (EUSKO JAURLARITZA ETA FORU ALDUNDIAK):

12. GRAFIKOA: Erakunde publikoen eginkizunari buruzko gaiak (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak):



OHARRA: 1-4 eskala: 1 "batere ados"; 2 "apur bat ados"; 3, "nahikoa ados" eta 4, "erabat ados".

Erakunde publikoen eginkizunari buruzko gaien datuetan (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak) ezberdintasun nabarmenak antzeman dira, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren batez besteko balorazioaren harira.

Hala, atal honetako batez besteko puntuaziorik baxuena "jarduerak garatzeko aurreikusitako epeak" gaiak jaso du, 2,33 puntu batez besteko. Halere, lurralde historikoen arteko aldea oso nabarmena da: Bizkaian, 1,33ra iristen da puntuazioa eta Araban, 2ra batez bestez. Gipuzkoaren kasuan, batez besteko puntuazioa 3,13 da.

Alde handiena duten gaiak hauexek dira: finantzazio ildoak eta emandako bitarteko ekonomikoak. "Bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaien buruzko finantzazio ildoak nahikoak dira" gaietan, batez besteko puntuazioa ondokoa izan da lurralde historikoen arabera: Araba 2, Bizkaia 1,17 eta Gipuzkoa 3,75.

Txosten honen lehenengo zatian jasotzen denez, Foru Aldundiek gai honi buruz garatzen dituzten politiken artean ezberdintasun azpimarragarriak daude. Gipuzkoako Foru Aldundia gai hauen inguruko jarduerak abiatzen ari da 2002az geroztik, eta udalei zuzendutako laguntza agindu bat sustatzen ari da 2018tik, zeina bateragarria den beste diru-laguntza batzuekin. Horretaz gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak bake, bizikidetza eta giza eskubideak arloko plan propioa abiatu du, "Bizikidetza Lantzen", zeian 2016tik inplementatzen duen. Garrantzitsua da gai hori aipatzea, txosten honetan jasotako balorazioak egiterakoan eragina baitu.


Grafikoan islatzen denez, oro har, erakundeen koordinazioa negatibotzat jotzen da, bereziki Bizkaian (1,67 batez bestekoa). Gipuzkoaren kasuan, batez bestekoa ona da (3 puntu). Aurretik aipatu denez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere plan propioa dauka, “Bizikidetza Lantzen” (2016), eta bertan, udalei zuzendutako diru-laguntza ildoak bildu ez ezik, udaletako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunen arteko topaketak ere sustatzen dira. Horrek erakundeen arteko koordinazio handiagoa eragiten du.

“Burututako proiektuek jarraipena eta ebaluazioa” gaiaren harira, batez besteko puntuazioa 2,53 puntukoa da. Baina lurralde historikoaren arabera, puntuazio hori oso ezberdina da. Araban, esaterako, jarraipena positiboki baloratzen dute (3 puntu). Bizkaian berriz, batez bestekoa 1,83koa da. Nahikora ere ez da iristen, bi udalerrik jarraipenaren oso balorazio txarra egin baitute. Gipuzkoaren kasuan, balorazioa positiboa da (3 puntu batez besteko). Gai honen aurrean, zenbait udalerrik ondoko zalantza agertu dute: Nork egin beharko lituzke jarraipena eta ebaluazioak.

“Jarduerak egiteko aurreikusitako epeak” gaiaren harira, udalerriek ondoko puntuazioak eman dituzte: Arabak 2, Bizkaia 1,33 eta Gipuzkoak 3,13.

NIRE UDALERRIKO BIZIKIDETZA PLANARI BURUZKO GAIAK

13. GRAFIKOA: Nire udalerriko bizikidetza planari buruzko gaiak



OHARRA: 1-4 eskala: 1 “batere ados”; 2 “apur bat ados”; 3, “nahikoa ados” eta 4, “erabat ados”.

Galdetegi hau egiterakoan, zenbait udalerrik, Audio, Leioa, Lasarte, Azpeitia, Errenteria, Tolosa eta Urnietak, besteak beste, adierazi dute ez dutela bizikidetza plan propio bat. Aipatutako udalerriek bizikidetza plan espezifiko bat garatu ez arren, egiten duten lana ikuspegi integraleko egitura bati lotuta dago, eta egitura horren xedea udalerraren bizikidetzan eragitea da, elkarlanetik eta adostasunetik abiatuta. Hori dela eta, aipatutako udalerriek burutzen ari diren programa eta jardueri buruzko balorazioak egin dituzte. Audioko Udalak, halere, ez ditu atal honetako galderak bete; beraz, Arabaren datuak ez dira grafikoan agertzen.

“Nire udalerriko bizikidetza planak bake, bizikidetza eta giza eskubideak alorreko hainbat gai jorratzen ditu (indarkeria, bizikidetza, giza eskubideak, memoria historikoa, eta abar)” izenburuko itemak atal honetako batez besteko handiena jaso du (2,53).


Zentzu horretan, hainbat udalek zenbait xehetasun egin dituzte gai horri erantzuterakoan. Udalerrietan garatzen diren jarduera guztiak udalerrien premietatik sortzen dira eta udal errealitatearen isla dira. Horrekin batera, hainbat udalek adierazi dute gai guztiak ez dituztela erritmo berarekin garatzen. Batzuek bizikidetzari buruzko gaietan sakontzen dute, beste batzuek indarkeria politikoan, gatazka komunitarioetan, memoria historikoan, eta abar.

“Bizikidetza planaren berrikusketa eta gaurkotzea” gaiaren harira, Gipuzkoako udalerriak 2,38ko puntuazioa eman dute batez beste, eta Bizkaikoek, berriz, 2,17.

Atal honetako baloraziorik baxuena (1,67) izan da, *“bestelako udal sailek bizikidetza planari buruz duten ezagutza”* gaiari dagokiona, hain justu. Zentsu horretan, Bizkaiko udalerrien aburuz, bestelako udal sailek bizikidetza planari buruz duten ezagutza positiboa da. Gipuzkoaren kasuan, ostera, udalek gaizkien baloratu duten gaia da (1,38).

Galdetegiari erantzun dioten udalek azaldutako arrazoiak askotarikoak dira: sailen arteko koordinazio eza, sail ezberdinetan garatzen diren jardueren eta proiektuen sozializazio eskasa, bizikidetza planaren hedapen eskasa, eta abar.

JARDUEREN DISEINU ETA ABIATZEARI BURUZKO GAIAK NIRE UDALERRIAN



OHARRA: 1-4 eskala: 1 "batere ados"; 2 "apur bat ados"; 3, "nahikoa ados" eta 4, "erabat ados".


Grafikoan azaltzen denez, puntuazio handiena lortu duen gaia *"garatzen diren jarduerak udalerriko hainbat kolektiborentzat dira"* da, 3,53 puntu batez besteko. Udalerri batzuek adierazi dute Gipuzkoako zenbait udalerritan egiten dituzten herritar foroak interesgarriak direla.

Bestalde, puntuazio baxuena jaso duen gaia *"udaleko sailen arteko koordinazioa"* izan da, 2,07 puntu batez besteko. Arabako udalerriek 3 puntu eman dizkie eta Bizkaikoek 2,33 puntu batez beste. Gipuzkoak baloraziorik negatiboena egin du, 1,75 puntu batez besteko. Zenbait udalen arabera, horren arrazoia hau da: sarritan, alkatetzatik sustatzen dituzten jarduerak dira eta jarduerok gune babestuetan garatzeko beharra dago. Hortaz, informazioa une jakin batzuetan baino ez da ematen, gainerako sailek prozesuaren berri izan dezaten.

"Garatzen diren jardueren hedapena" gaiaren harira, udal guztiek 2 puntutik gorako balorazioa egin dute. Halere, udal batzuen arabera, hobetzeko tarte dago, eta beste batzuen aburuz, zabalkunde on batek beti ez du partaidetza handi bat bermatzen. Oro har, udalek nota ona atera dute gai honetan.

"Lantalde politikoaren eta teknikoaren gaitasuna gai honetan" izenburuko itemak 2,53 puntuko batez bestekoa lortu du. Zenbait udalek adierazi dute esparru honetan asko ikasi behar dutela, eta positiboki baloratzen dute gai honi buruz langile politikoak eta teknikoak eskuratzen ari diren gaitasunak, gehienbat udalerririk sustatzen dituen prozesu eta jardueretan izandako partaidetzaren ondorioz.

15. GRAFIKOA: Jardueren diseinu eta abiatzeari buruzko gaiak nire udalerrian (burututako jarduerak)



OHARRA: 1-4 eskala: 1 "batere ados"; 2 "apur bat ados"; 3, "nahikoa ados" eta 4, "erabat ados".

Atal honetan puntuaziorik handiena "gai honetan espezializatutako kanpoko erakundeekin laguntza egotea jarduerak garatzeko" izenburuko itemak jaso du, 3,80 puntu batez besteko. Galdetegian parte hartu duten udal guztietan urteak daramatzate gai honetan adituak diren erakundeekin elkarlanean jarduerak garatzeko xedearekin.

Inkestan parte hartu duten udalean arabera, "burututako jardueren jarraipena eta ebaluazioa" egokia da, eta gai horrek 3,27 puntu jaso ditu batez beste. Prozesuan zehar jarraipenak egiten dira, eta jarraipen horien bidez, sortzen diren beharrianak egokitzen dira. Horretaz gainera, ebaluazioak egiten dira proiektuak amaitzerakoan.

Azken bi galderek programa horiek udalerriko bizikidetzari eragina aipatzen dute, bai eta inplementatutako jarduerak horiek lortu duten asebetetzea ere.

Bestalde, erabateko adostasuna agertu dute gai honetan: plan, programa edo jarduerak mota hauek bizikidetzari laguntzen diote udalerrian, Araba, Bizkaia zein Gipuzkoan batez bestekoa 3 puntutakoa baita. Hortaz, nabarmena da programa hauek positibotzat jotzen direla. Kasuren batean, gainera, planaren egitura berak eta erabateko batzordeek ahalbidetu dute oinarriak jartzea udalerrian sortu daitezkeen bizikidetzari lotutako edozein erronkari aurre egiteko.

Azkenik, burututako jardueretik udalerrien asebetetzea handia da (3,27 batez besteko). Udalerrri guztiek puntuazio ona ematen diote gai honi: 15 udalerritatik 7k puntuaziorik altuena (4 puntu) eta beste 5 udalerririk 3 puntukoa. Azpimarragarria da garatutako ekimenen balorazio globala egiteko balio duen itema baita.

Jarraian, udaletako edota erakundeetako teknikariek galdetegiaren **bigarren zatian** egindako ekarpenak biltzen dira:

- Bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen gaiei buruzko programa eta planak sustatzerakoan **mantendu eta hobetu behar diren aspektuak erakundeen eginkizunaren harira (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak).**
- **Udalaren eginkizuna** bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen gaiei buruzko programa eta planak diseinatzerakoan eta abiatzerakoan zure udalerrian.

Bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko programa eta planak sustatzerakoan mantendu eta hobetu behar diren aspektuak erakundeen eginkizunaren harira.

9. TAULA: Erakundeen eginkizuna bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko programa eta planak sustatzerakoan.

MANTENDU BEHARREKO ASPEKTUAK	HOBETU BEHARREKO ASPEKTUAK
ARABA	
<ul style="list-style-type: none"> Eusko Jaurlaritzak agertutako hurbiltasuna edozein zalantzaren aurrean. Diru-laguntzen ildoak. 	<ul style="list-style-type: none"> Arabako Foru Aldundiarekin ez dugu gai hau lantzen. Agindua urte hasieran argitaratu beharko litzateke. Programa batzuetan, zaila izaten da eskolako ikasturtean sartzea, exekuzio epea urte naturalekoa baita, eta ikastetxeekin hitz egiten denean, urtea ikasturtekoa izaten baita. Diru-laguntzaren zenbatekoa handitzea
BIZKAIA	
<ul style="list-style-type: none"> Finantzazioa. (4) Bizikidetza sustatzea jarduera gisa. Beharrezkoa da bai Eusko Jaurlaritzak bai Foru Aldundiek programa eta plan hauen aldeko apustua mantendu behar dute, tokiko erakundeek tekniki eta diru aldetik lagunduz. Diru-laguntza ildoak egungo esparruetan. Erakunde eta udalek dituzten laguntza eskasak mantentzea. Tokiko bizikidetzari laguntzea. Finantzazio-ildoak. Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzako Idazkaritzako Bake, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Plana. Komunikazioa tokiko erakundeekin. Esparru honetan landu beharreko edukietara irekitzea plana. 	<ul style="list-style-type: none"> Finantzazioa eta udalak (3). Laguntzen egutegiaren informazioaren eta sistematizazioaren hobekuntza (2). Bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiei buruzko programa eta planetara bideratutako aurrekontuko partidak handiak beharko lukete izan, daukaten potentzialtasunagatik eta programa eta plan horietan parte hartzen duten pertsonengan eragite dituzten sare, jardunbide on, esperientziengatik. Giza Eskubideen diskurtsoaren harira, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien politiketan koherentzia handiagoa izatea, batez ere politika ekonomiko eta sozialetan, bai eta giza eskubideen betetzean eragin zuzena duten hezkuntza eta osasun esparruetan ere; hortaz, herritarren eguneroko bizikidetzan eta ongizatean (ongizate materiala, bai eta kulturala ere). Ezin da giza eskubideei buruzko politika sendo bat egin noizbehinkako eta sakabanatutako esku-hartze programetatik eta trebakuntzatik abiatuta, aipatutako esparruetan garatutako politikekin kontraesanean daudenean edo huts egiten dutenean. Aholkularitza eta laguntza tekniko udalentsat. Egiten diren programen ezagutza. Burututako jardueren ebaluazioa eta jarraipena. Erakundeek zuzendutako diru-laguntzen deialdien ildoei bitarteko gehiago ematea, beste inbertsio batzuekin alderatuta (esaterako, azpiegiturak) kasik hutsalak baitira. Horretaz gainera, zenbait urtetarako deialdiak beharko lukete izan, proiektuei sendotasun gehiago emateko. Udalen eginkizuna eta eskuduntza argi mugatzea bizikidetza eta giza eskubideen esparruan. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek gehiago animatu beharko litzateke udalak (herritarrengandik gertuen dagoen erakundea den aldetik), behar dituzten bitartekoak emanez, bizikidetzan laguntzeko eta giza eskubideen eta bakearen zeharkakotasuna tokiko eta udal politiketan gehiago txertatzeko. Hainbat eraklunderen arteko elkarrekin jarraitzea eta gogoetarako foroak ezartzea, gizarte-eragileen partaidetzarekin (diziplina anitzekoa).
GIPUZKOA	
<ul style="list-style-type: none"> Laguntzak eta dirulaguntzak. (8) Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen mintegi eta jarduerak. (4) Biktimekin elkarrizketa. (2) Jarraipena eta planifikazio orokorra. Gogora-ren jarduerak. 	<ul style="list-style-type: none"> Trebakuntza handiagoa bizikidetza eta giza eskubideen esparruan (3) Deialdia eta eabazpena lehenago argitaratzea (2) Erakundeen arteko koordinazio zabalagoa eta egokiagoa.

Udalaren eginkizuna bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiari buruzko programa eta planak diseinatzerakoan eta abiatzerakoan zure udalerrian.

10. TAULA: Udalaren eginkizuna bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaiari buruzko programa eta planak diseinatzerakoan eta abiatzerakoan.

MANTENDU BEHARREKO ASPEKTUAK		HOBETU BEHARREKO ASPEKTUAK	
ARABA			
<ul style="list-style-type: none"> • Koordinazioa eragile ezberdinekin, programak abiatzeko eta ebaluatzeko. • Esku-hartzeen kalitatea. 			
BIZKAIA			
<ul style="list-style-type: none"> • Bizikidetzaren aldeko apustua eta interesa, jarduteko ardatz gisa. • Udalerriko bizikidetza planean egiten den lanaren garrantzia azpimarratzen jarraitzea. • PICSak garatzeko borondatea mantentzea, udalaren ekarpenarekin. • Konpromisoa. • Hezuntza esparruko esku-hartzea mantentzea eta zabaltzea. • Bizikidetza hobetuko duten programak garatzea. • Koordinazioa espezializatutako erakundeekin. • Jarduteko ildoak. • Bitartekotza eta gaztazken ebazpenerako udal zerbitzua. • Programen finantzazioa (diru-laguntzen ildotik harago). • Behintzat dagoena mantentzea, zenbait jarduera egitea ahalbidetzen baitu. 		<ul style="list-style-type: none"> • Zabalkunde handigoa udal teknikarien artean. • Egiten diren programen arteko koordinazio handiagoa • Udal Sailen arteko koordinazio handiago baten aldeko apustua egin behar dugu, bizikidetza planean jasotako helburu gehiago lortzeko asmoz. • Udalaren inplikazio handiagoa. (Orduak sartu ditzakeen arduradun bat). • Finantzazio gehiago. • Bizikidetza eta giza eskubideen plana aldizka berrikustea. • Programak inplementatzea (gehiago). • Bizikidetza programak gehiago sustatzea. • Udaleko bestelako sailetan egiten den lana ezagutzea. • Bizikidetza, giza eskubideak eta herritarren partaidetza hobeto bideratzea. • Sailen arteko koordinazioa, bizikidetzaren alde. • Udal teknikariek trebakuntza gehiago jaso dezatela. • Bizikidetza eta bake/gatazka gaiari buruzko barruko trebakuntza izatea, eta gogoetarako guneak sortzea, bizikidetza eta giza eskubideen gaietan nola lagundu jakiteko udal politiken bidez. • Planera laguntza tekniko eta ekonomiko gehiago bideratzea. 	
GIPUZKOA			
<ul style="list-style-type: none"> • Udalean ordezkariak duten alderdien arteko elkarlana mantentzea eta erabakiak adostasunez hartzen jarraitzea (3) • Udaleko talde politikoen artean elkarriketa prozesua mantentzea (2) • Gaiarekiko konpromisoa.(2) • Mahai politikoa. • Jarduerak burutzea, bizikidetza hobetzeko. • Bizikidetza batzordea, lantaldea. • Laguntzak. 		<ul style="list-style-type: none"> • Udaleko ordezkarien artean komunikazio eta harremana. (3) • Herritarren artean zabaltzea. (2) • Jarduera zabalagoak eta irekiagoak herrian. • Ordezkari politikoen artean enpatia handitzea. • Udal sailen artean hedatzea. 	

ONDORIOAK

Jarraian, bildutako informazioaren laburpen txiki bat bilduko da:

Erakundeek mantendu behar dituzten aldeak:

Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiak (egun Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritzaren Nagusia) garatutako bizikidetzaren, bake eta giza eskubideen planari garrantzia ematen zaio, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako “Bizikidetzaren Lantzen” planari ere (plan horretan bildutako bi jarduerak mantendu beharreko elementuetan behin eta berriz agertzen baitira). Inkestan parte hartu zuten udalen arabera, esparru horrek tokiko bizikidetzaren hobekuntzarako jarduerak lagundu, babestu eta sustatzen ditu. Hortaz, garrantzizkoa da Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek **tokiko erakundearen aldeko programa eta planak sustatzen jarraitzea, laguntza teknikoa eta finantzazioa eskainiz.**

Erakundeetatik bultzatutako **diru-laguntzen ildoak mantentzeko** premia orokorra da. Finantzazioaren gaia buruhaustea da udalentzat eta ia udal guztiek azpimarratu dute gai horren garrantzia.

Bestalde, **erakundeetatik sustatutako zenbait jarduerak eta programa** nabarmentzen dira, tartean, Gogora Eusko Jaurlaritzako Memoria, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak EAEko zenbait udalerritan garatutako “Memoria Plaza”, biktimekin mantentzen duten elkarrizketa eta Eusko Jaurlaritzak garatutako hainbat ikerlan eta txostenak. Horien guztien bidez, jarduerak eta gogoetak garatzen eta sustatzen dira bake, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan.

Gipuzkoako udal gehienek ontzat jo dute Foru Aldundiarekin duten harremana. Udal horien aburuz, Foru Aldundiak ontzen dituen **mintegiak eta jarduerak** interesgarriak dira.

Erakundeek hobetu behar dituzten aldeak:

Atal honetan gehien nabarmendu den aspektuetako bat **diru-laguntzen ildoak** da. Batetik, laguntza-aginduen **zenbatekoa handitzeko beharra** azpimarratu da. Bake, bizikidetzaren eta giza eskubideen gaiei buruzko programa eta proiektuetara bideratutako aurrekontu-sailak oso txikiak dira beste esparru batzuetakoekin alderatuz gero. Hortaz, baloratu beharreko elementua da, udalek finantzazio hori ezinbesteko baitute politika hauek garatzeko. Horren harira, Arabako zein

Bizkaiko udal gehienek laguntza-aginduen zenbatekoa handitzeko beharra proposatu dute. Aurretik aipatu denez, Gipuzkoan, Foru Aldundiak bere ildo propioa dauka; beraz, udalen arabera, garrantzitsua da ildo hori mantentzea, ildo horren bidez proiektu zabalagoak egin baitaitezke.

Laguntza-aginduari lotutako hobetu beharreko kontuekin jarraituz, **argitalpen-data eta aurkezpen-data** aipatu dira, hala deialdienak nola ebazpenenak, bai eta gero egin behar dien justifikazioenak ere, **jardueren garapen egokia oztopatzen baitute**. Hala, aginduak urtarrilean argitaratzeko proposamena egin dute. Horrek planifikazio eta koordinazio lana erraztuko luke. Udalen lanaz gainera, udalerriko bestelako eragileekin (eskolakoak, elkarteka, eta abar) programak sustatzeko egin beharreko lana ere erraztuko luke. Aginduak urtekoak izatea ere hobetu beharreko kontua da, proiektu handiagoak egiteko asmoa mugatzen baitu. Horren ondorioz, noizbehinkako esku-hartzeak egiten dira. Hala, udalen aburuz, garrantzitsua da zenbait urteko proiektuak egin ahal izatea, proiektuok sendoagoak eta koherenteagoak izateko asmoz.

Zehazki, udal batek **koherentzia handiagoa** eskatu du, giza eskubideei buruzko politiken harira. Erakundeek bizikidetzako planak eta programak abiatu behar dituztela nabarmendu dute, potentzialtasun handiko ekimenak baitira. Halere, uste dute ez dela soilik giza eskubideen aldeko diskurtsoa egon behar, baizik eta giza eskubideek bestelako politikak zuzendu beharko lituzketela, ekonomikoak, sozialak, hezkuntzakoak eta osasunekoak, herritarrei betetzen direla bermatzeko.

Zentzu horretan, udalek adierazi dute garrantzizkoa dela bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen gaiei buruzko **trebakuntza handiagoa sustatzea**.

Hobetu beharreko beste alde bat hauxe da: **udalen eta bestelako erakundeen arteko koordinazio handitzea**. Fluxu horrek elkar ulertzea ahalbidetuko luke. Udal bizikidetzaren errealitatera gerturatzeko modu eraginkorra izango litzateke. Horrek guztiak, gainera, udalei zuzendutako aholkularitza eta laguntza teknikoaren hobekuntza bermatuko luke. Horrekin batera, erakunde-maila ezberdinetan burututako jardueren inguruko informazioa trukatzeko aukera egongo litzateke, eta gai honen inguruko jardunbide egokiak agerian jarriko liriateke. Halaber, erakunde bakoitzaren ardura eta eskuduntzak mugatzera ere lagunduko luke.

Horrekin batera, harreman handiago batek hainbat erakunderen arteko elkarrizketa eta gogoeta foroak egitea ahalbidetuko luke. Foro horietan, gainera, **gizarte-eragileek parte hartuko lukete**.

Udalek mantendu behar dituzten aldeak:

Gehien errepikatzen den ideietako bat hauxe da: **apustua eta konpromisoa mantentzea**, gai honi buruzko jarduerak egiten jarraitu ahal izateko udalerrietan.

Horretaz gainera, planetan eta udal jardueretan **egiten ari den lanaren garrantzia azpimarratzea** proposatu dute. Zentzu horretan, bizikidetzako udal planak sustatzen jarraitzeko premia nabarmendu dute. Halaber, jarduerak handitzeko premia ere antzeman dute, tartean, esku-hartze programak hezkuntzan eta bitartekotzarako eta gatazken kudeaketarako zerbitzuak edo

Gai honetan espezializatuta erakundeen eta udalen arteko koordinazio positiboki baloratu dute.

Gipuzkoako udal gehienen arabera, **oso garrantzitsua da elkarrizketa-prozesuak eta udaletan ezarritako bizikidetzeta-batzordeak mantentzea**. Gune horietan udal ordezkariak duten alderdi politiko guztietako kideek parte hartzen dute, eta mantendu beharreko elementua dela uste dute. Gune horietan egiten den lana ere mantendu beharko litzateke. Adostasunez hartutako erabakiak ahaztu gabe.

Udalek hobetu behar dituzten aspektuak:

Grafikoetan eta ondorengo analisisian jasotzen denez, barruko koordinazioa erronka handia da. Horretarako **udal sailen arteko koordinazio, komunikazio eta hedapen handiago baten aldeko apustua egin behar da**, jarduera guztiak arduradun batek koordina ditzan, egiten diren proiektuak zabalduz, informazioaren kontrasterako eta trukerako guneak sortuz, eta abar.

Bestalde, zenbait udalen arabera, **garrantzizko da bizikidetzako planari bultzada handiagoa ematea**. Horretarako bizikidetzeta-programa gehiago inplementatzea proposatzen dute, aldizkako ebaluazioak egitea, laguntza tekniko eta ekonomiko gehiago bideratzea planera, eta herritarren artean gehiago zabaltzea, garatutako proiektuak gehiago eta hobeto ezagutu daitezen,

Behin eta berriz agertzen den beste alde bat hauxe da: **langile politiko eta teknikoak bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen gaitan trebatzeko beharra**. Horretaz gainera, gogoetarako eta elkarrizketarako guneak sortzea proposatu dute, hainbat kontu aztertzeko asmoz, tartean, udalek nola lagundu ahal duten bizikidetzaren hobekuntzan eta giza eskubideekiko errespetuan.

Sarritan errepikatu den bete aspektu bat herritarrak aintzat hartzearena da, herritar guztientzako proiektuak sustatzea alegia. Hala, bizikidetza, giza eskubideak eta herritarren partaidetza hirukotea hobetzeko beharra azpimarratu dute. Bizikidetza-planetan ezinbestekoa da **herritarren inplikazioa eta protagonismoa**, bai eta udalak proposatzen dituen gauzak ondo zabaltzea ere, eta udalaren kasuan, gai honi buruz herritarrek luzatzen dituzten proposamenak aintzat hartzea.

Ikerlan honen jabea **Euskadiko Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen foroa** da.



Egiletza: Bakeola, Bizikidetza, Gatazka eta Giza Eskubideak.



6. ERANSKINAK

UDALERRIAK BIZIKIDETZAREN ALDE

EAEko udal ekintzarako jarraibide etikoak

1. Gure udalerriek askatasunean, justizian eta bakean bizikidetzaz sustatzeko guneak izan behar dute

Gure udalerriak, ordezkari publikoak gidari dituztela, askatasunean, justizian eta bakean bizikidetzaz sustatzeko guneak izan daitezke eta izan behar dute. Izan ere, bertan gauzatzen da eguneroko “elkarbizitza”, funtsezko gaitan tokian tokiko udal erakundeei lotuta; beraz, gune horretantxe gauzatzen da herritar gisa dugun bizikidetzaz hurbilena. Lotura horri esker, identitate-bizipen gero eta sakonagoa ari da finkatzen, eta bizipen hori bitartekari egokia izan daiteke identitate-gatazka handiagoetan. Bizipen horietatik bizikidetzarako jarrerak eta helburuak sortu daitezke udalerrietako biztanleengan, eta beharrezkoa denean, udal maila gainditu eta haratago joan daitezke.

Zentzu horretan, guztiz beharrezkoa da auzotasun sentimendua berretsi eta sustatzea, tokiko identitate horren osagai funtsezkoa den heinean. Gure inguruko auzokide batzuk arrotz bihurtzeko egon daitezkeen asmoen aurrean, tokiko auzotasun horrek baliagarria izan behar du ‘hurkotasun’ sentimendua eta esperientzia eraikitzeko, eta horren gainean finkatzeko koexistentzia hutsa baino haratago doan bizikidetzaz.

2. Gure udalerrietako bizikidetzak bertako gatazken kudeaketa positiboa behar du

Gure hiri eta herrietako bizikidetzaz baketsua ez da gatazkarik ez egotea soilik, bizikidetzaz horren kudeaketa positiboa egitea baizik. Horrek esan nahi du:

- Era askotan agertu daitezkeen berezko eta ageriko ekintza suntsigarriak – berariazko eta zuzeneko indarkeria– saihesteko lana egiten dela.
- Zapalketa eta bazterketa dakarten injustiziak –oro har, oinarri egiturazkoa eta sinbolikoa dutenak– amaitzeko ahalegina egiten dela.
- Bidezko auzien inguruko gatazkek eraldatzeko prozesuak bilatzen eta sustatzen direla; ez bakarrik liskar bortitzak gerta ez daitezen, ezpada oinarrizko errespetuaz gain, lankidetzarako bide eta sormenerako aukera izan daitezen.

Areago, kontuan hartu beharko litzateke ‘gatazkaren probentziorako’ ikuspegia,

hau da, gatazkak egoki azaltzeko esku-hartze prozesua, kausak ezabatzeko egin behar diren egiturazko aldaketak aztertzen dituen, eta gatazkak indarkeriarik gabe bideratzeko behar diren lankidetzajarrerak eta harremanak sustatzen dituen.

Beraz, gatazka-egoera baten aurrean, funtsezkoa da desberdintzea zer den onartezina eta zer den errespetagarria, giza eskubideen irizpideari jarraituz betiere, gatazkak bereizteko eta horiek tratatzeko modua bideratzeko. Euskal udalerrietako gatazka aipagarrienak, beste batzuen artean ezkutatuta edo gainjarrita agertzen zaizkigunak ahaztu gabe, honako hauek dira:

- Honela adierazten direnak: genero indarkeria, indarkeria terrorista, etnoarrazista edo tortura Estatuaren legez-kontrako indarkeria gisa.
- Egiturazko indarkeria, pobrezia eta desberdintasunak eragiten dituen, eta sarritan beste indarkeria batzuen sustraia izaten dena.
- Identitate nazional eta etnikoei lotutako gatazkak, berez errespetuaren eremuan kokatu daitezkeenak, giza eskubideen kalterako ez badira.

3. Biktimek bizi izandako sufrikarioa da indarkeriaren eta horren ondorioen adierazpen nabariena

Bizikidetzaren aldeko ekimenen erreferentzia nagusietako bat biktimak izan behar dira, horiengan agertzen baita benetan indarkeria non egon den, zenbaterainokoa izan den, eta nortzuk izan diren protagonistak. Lehenik eta behin, biktima errealak, biktima izan direnak: ekimen horien bidez aurrerapausoak egin behar dira memoriaren, egiaren eta justiziaren bidean, zor zaien elkartasunari, aitortzari eta kaltea ordaintzeari begira, eta, biktima diren aldetik, dagokien protagonismoa izan behar dute; protagonismo hori biktimazio mota ezberdinen arabera gauzatuko da, eta ekimenen izaerak eta tokiak erabakiko dute. Bigarrenik, biktima potentzialak, ahul direlako edo babesik gabe daudelako biktima izan daitezkeenak. Etorkizunari begira, herritarren ekimenek funtsezko helburu bat izan behar dute: biktimarik ez izatea. Nolanahi ere, horrek guztiak biktimarioekin aurrez aurre jartzea dakar, eta horretan garrantzi handikoa da, ez bakarrik denen duintasuna errespetatzea, baita, ahal den neurrian, aldaketa prozesuak sustatzea eta laguntzea ere, bizikidetzan txertatu daitezen, denak inplikatzeko baita bizikidetzaren azken helburua.

4. Indarkeriaren kultura indargabetzeko ikuspegiak asmatu eta ekimenak diseinatu behar dira

Aurre egin behar zaion indarkeria ez dira ekintzak bakarrik –zuzenekoak edo egiturazkoak—. Horien oinarrian «indarkeriaren (azpi)kultura» dago, eta

bizikidetzaren aldeko udal ekimenek aurre egin behar diote arazo horri. Gogoratu behar da kulturen bidez mundu-ikuspegiak azaltzen direla:

- Jarrerei eta portaerei zentzua ematen diete, balioak, helburuak eta lehentasunak ezartzen baitira.
- Horiek gauzatzeko irizpideak eta bitartekoak –egiturazkoak eta instrumentalak– eskaintzen dituzte.
- Gizabanakoak identitate partekatu batean elkartzen dituzte.

Esate baterako, genero indarkeria edo indarkeria terrorista aztertzen baditugu, oharreko gara horien oinarrian, modu batera edo bestera, azpikultura bat dagoela eta horrek ematen diola indarra:

- Genero harremanak edo nazioa ulertzeko eta sentitzeko moduekin.
- Horrekin batera doan «gu-haiek» konfrontazioa diseinatzeko moduekin.
- Hortik sortzen diren «balio», jarrera eta portaera guztiekin.
- Horretan laguntzen duten identitate-eremuak, erreferentzia ideologiko justifikatzaileak, gizarte-imaginarioak, tresnak, loturak eta erakundeak sortuz.
- Talde-ekintzak bestea menderatzera, suntsitzera edo baztertzera bideratuz.

Indarkeriari erakundeetatik egin behar zaio aurre, neurri polizialak eta judizialak hartuta; hein batean udalen esku ere badaude neurri horiek, eta udalek bultzatu egin behar dituzte eraginkortasun irizpideak eta eskakizun morala bateragarri eginez. Indarkeriari alternatiba sortzaileen bidez ere egin behar zaio aurre. Gauzak beste modu batean egin daitezkeela erakustea, entzutearen eta elkarrizketaren bidez, denak aintzat hartuak eta errespetatuak senti daitezzen, ezberdintasunak modu eraikitzailean ebatziz.

Alabaina, kultura jakin batean oinarrituta dagoenez, kulturaren bidez egin behar zaio aurre, hau da, «bakearen kulturaz» edo gatazka-egoera eraikitzailea deitu dezakegun horren bidez; maila horretan, gatazka denen onerako baliatzen da, eta beraz, denen sormenerako aukera ematen da (edo suntsiketa saihesteko erne egoten da behintzat). Maila horretan udalen ekimenak hezitzaileak izan beharko dute argi eta garbi.

Orientazio hezitzaile hori eraginkorra izatea nahi bada, nahitaezkoa da tokiko errealitatea osatzen duten eremu guztiak –kale eta plazak, auzoak eta hiriak, gizarte-etxeak eta udal erakundeak– toki horretako hezkuntza-erakundeekin jotzea. Hiri osoa errealitate hezitzaile bihurtu nahi bada, ezinbestekoa da

helburuetan eta praktikan, kalea eta eskolaren arteko koherentzia eta jarraipena egotea.

5. Gure udalerrietako konfrontazio politikoa kultura demokratikoan oinarritu behar da, hots, gatazka-egoera eraikitzailearen kulturean

Udal esparru publikoak, printzipioz, alderdien arteko konfrontazio demokratikorako esparruak dira, eta espero izatekoa da udalerriaren onerako dela. Erakunde gisa nahiz heziketari begira, benetako erreferentzia izan behar dute «kultura» demokratikoa deitzen den horretan, hau da, gatazka-egoera eraikitzailearen kulturean –edo lehiakortasun kooperatiboan–. Beraz, bermatu behar den oinarri-oinarrizko mailan, horrek esan nahi du «lehiakideak» partaide direla honako hauetan:

- Oinarrizko balio eraikitzaile komunak dituzte –giza eskubideetan aintzat hartzen direnak–, baina baita jarrera gisa bizi izandako gaitasun psikokulturalak ere –ezberdintasunarekiko errespetua, justiziaren zentzua, elkarriketarako gaitasuna, zintzotasuna eta abar–, eta horiek dira konfrontaziorako oinarriak.
- Garrantzia ematen diote desadostasunen identifikazioari eta euren kudeaketarako prozedurei, eta gatazken ebazpenerako prozedura jakin bat partekatzen dute: elkarriketa baldintza berdinetan eta gehiengoan legea gutxiengoei dagokienez.
- Zuzentasuna eta dagozkion prozedurazko betekizunak bermatzen dituen euskarri instituzionala dute.

6. Eztabaida politikoan emaitzei buruzko kezkek eta amorruren estrategiak utzi eta alderdikeria ez den egoerak eta eztabaidatu daitekeenak hartu behar du lekua

Dena den, interes orokorrari begira esparru publikoak eraginkorrak izatea nahi badugu eta herritar guztien artean bakerako heziketa zabaldu, askoz harago begiratu behar da. Lehenik, eztabaidetan, alderdien interesaren gaintik egon behar duena bereizi behar da, denek zehatz-mehatz mugatu eta, adostuz eta partekatuz, bere gain hartu behar dutena, hau da, alderdi-interesak alde batera utzita –oinarrizko giza eskubideak hemen eta orain gauzatuta–, eta berez alderdiei dagokiena zehaztu, eta maila horretan bidezkoa eta egokia izan daiteke konfrontazioa izatea ere. Bigarrenik, prozesu demokratikoetan eztabaidaren garrantzia bultzatu eta ondoren bat egiteko unea lortzeko lehentasuna murriztu behar da. Hau da, lehentasunezko helburua edo agian

bakarra, udaleko gai batean, ez da aurkari politikoari (demokratikoki) irabaztea, ahalik eta boto gehien bilduta, baizik eta adostasuna lortuko duen proposamena aurkitzea, eta horri begira eztabaidarako prest gaude. Hala ere, arrazoizko denbora agortuta, eta adostasunik lortu ezean, egokia izango da erabakitzeke botazioak egitea. Udaletako jardunbide instituzional horiek, gertatzen direnean, bakearen kultura adierazteaz gain, herritarrak hezten dituzte bakearen kulturaren eredu emanenez. Ez da ahaztu behar, gainera, elkarbizitzaren helburuak alderdikieratik kanpo daudela. Jardunbide hauen aurka daude «sumin politikoaren kultura» delakoa; bertan, aurkariaren kontrako norgehiagoka ideologiko-sentimentala modu sistematikoan dago bultzatuta, bestea garaitzeko estrategia bezala.

7. Elkarbizitzarako hezkuntzak ekimen zuzenak eskatzen ditu gure udal instituzioen aldetik eta herritarren gizarte-erakundearen aldetik.

Esan bezala, udalek elkarbizitzan irradiazioz hezten badute, nahitaez (eta horrek ondo egiteko erronka dakar berekin), ekimen zuzenak eginez edota bultzatuz ere hezi behar dute. Horrek adierazten duenez, ekimen horien subjektuak udal instituzioak nahiz mota guztietako gizarte erakundeak izan daitezke, hainbat esparrutan elkarbizitzaren alde lan egiteko helburua baitute, hori ukatzen duten askotariko indarkeriei aurre eginez. Erakunde horiek zenbait modutan koordinatu behar dira udalarekin; batzuetan, berari proposamenak eginez, beste batzuetan, hark egindakoak beren gain hartuz. Aukera horien aurrean erabakigarriena ez da norbere interesetan oinarritutako protagonismoak bilatzea, baizik eta elkarbizitzaren helburua lortzeko eraginkorrak izatea. Batzuen eta besteen interesetatik zentzuz aldentzea irradiaziozko hezkuntzarako giltzarria da, eta era berean espero diren emaitzak lortzea errazten du modu erabakigarrian. Irizpide sakon horien bidez, udalek beren ekimenak arautu –batzuk unean unekoak, besteak sistematikoak– eta gizarte erakundeak lagundu beharko diete, baliabideen bitartez eta laguntza instituzionala emanenez. Halaber, erakunde horiei kontuak eskatuko dizkiete, eta instituzioek kontuak emango dizkiote gizarteari.

8. Elkarbizitzarako ekimenak plan integral eta sistematikoetan sartu behar dira, lehentasunezko beharretan eta erabiltzeko baliabideetan oinarrituta.

Posible den ekimen sorta oso zabala da eta hau ez da lekua zehazteko. Batetik, indarkeria motak edo bizikidetzaren arazoak mugatuko ditu; bestetik, udalaren errealitateek eta dituzten baliabide publikoek; bestetik, gauzatu behar

dituzten pertsonak, etab. Bere izaeragatik, esan daiteke ekimenak formalki hezigarriak direla, sinboliko-adierazgarriak, esku-hartze sozialekoak, etab. Garrantzitsua da plangintza egokian sartzea, eta ez loturarik gabeko ekimenen tentazioa, unean-unekoak eta oportunitateak edo propagandarako helburuek eraginda. Ekimenen plangintza horretan komeni da aipatutako gizarte erakundeek parte hartzea, bide egokien bitartez, gizartean duten eragina bermatuz.

9. Gure gizartean identitateekin lotutako gatazka arintzeko faktorea da giza harremanen esperientzia

Lehen esan bezala, bereizi behar dira indarkeria bera, adierazpen desberdinetan, eta gatazka printzipioz errespetatu beharreko gaien inguruan, nahiz eta gai horiekin bat ez etorri. Horien artean nabarmendu behar dira, udal esparruetan, identitate kolektiboen gatazka gisa azaldutakoak, gure kasuan, identitate nazionalak eta identitate etnokulturalak barne hartuz; izan ere, gero eta etorkin gehiago daudenez konplexuagoak bilakatu dira. Gatazka horiek bereziki korapilatsuak dira; izan ere, bertan irtenbideak ezin dira eztabaidatu baliabideen gatazkek konpontzen diren bezala -horiek banatuta-; eta modu ezegokian erabili edo manipulatzeko indarkeria eta bazterketa sortzen ditu erraz, esaterako, ETAren historiak eta arrazakeria eta xenofobia pizteak erakusten duten bezala. Beraz, udal esparruak oso egokiak dira arazo horiei aurre egiteko.

Alde batetik, bizitza arruntean gizabanakoekin aritzen gara, eta ez identitate kontuek aipatutako abstrakzio edo estereotipoekin. Elkarreragin horiek ezartzen dute taldeko bizitza lanean, eskolan, estadioan edo supermerkatuan, besteak beste. Elkarreragin horiek bi ezaugarri dituzte: aniztasuna, ez dago beste baten berdina den pertsonarik; eta gizatasuna, hau da, gure izaera unibertsalaren ohiko ezaugarriak; ospitaleko gela batean sufritzen ari den pertsona batek gure enpatia sortzen du, bere zaugarritasunean geure burua ikusten baitugu, gainontzeko arlo guztietan gure desberdintasunak edozein direla ere.

Bestalde, tokiko bizitzak eskaintzen dituen hainbat egoerak adorea ematen dute elkarlanean aritzeko, partekatutako helburuak lortze aldera. Justizia sozialaren betebeharrak eta eskubideak hemen agertzen dira nabarmen –kontu etnonazionalen kategoria ia erlijioso, banaezin eta negoziatzeko aurrean-. Kulturartekotasuna arau orokorraren kasu partikularra besterik ez da, non lankidetzak eta elkartasun arauak ezartzen diren desberdintasunetatik abiatuta; izan ere, desberdintasun horiek gure gizarte anitzaren berezkoak dira. Beraz, elkarreraginak eta lankidetzak metodoek ematen dituzten onuretan oinarrituta,

inklusio eta kulturartekotasunaren filosofian bere adierazpen guztietan inspirazioa hartu duten ekimenak bultzatu behar dituzte udal proiektuek.

10. Erabat garrantzitsua da ekimen espresibo-sinbolikoak laguntzea gure hirietan elkarbizitzarako gune bezala finkatzeko.

Aurretik adierazi dugunez, hainbat prozesu mota daude: parte hartzea eta dinamizazio komunitarioa, gizarte adiskidetzea eta herritarren elkartasuna, biktimei zor zaien aitortpena eta konponketa..., eta hezi, prestatu eta trebatu, eta sentsibilizatzeko ekimenak.

Azken horien artean, ekimen espresibo-sinbolikoak nabarmendu nahi ditugu; izan ere, jendaurrean, beren esparru pribilegiatua aurkitzen dute udalerrietan. Sinbolikoa hiri batean ondokoen bidez bizi da bereziki: ekintza adierazgarriak, monumentuak, kale izenak, etab., baita denboraren eremuan ere, egun zehatzetan herritarren gorespenari dagozkion ospakizun eta oroipenetan. Lehenengoz, kontuz ibili behar da biktimizatzen duen ekitaldirik ez egiteko, monumenturik ez jartzeko, edo izenik ez jartzeko, biktima-eragileak goستن dituztelako. Bigarrenik, positiboan, ekitaldiak eta monumentuak bultzatu behar dira; horrela, hala badagokio, biktimak aitortzeko beharra betetzeko, elkarbizitza adierazteko eta arlo horretan aurrera egiteko. Pentsatu biktimen aldeko omenaldietan, bakearen aldeko kontzentrazioetan, manifestazioetan, etab. Edo bakearen eta elkarbizitzaren alde lan egin duten pertsonak omentzen dituzten monumentuetan –biktimak izan edo ez-, edo beren indar artistiko osoarekin balio jakin batzuk adierazten dituztenak; edo itxuraz neutroagoak diren monumentuetan, baina talde identifikazio integratzaileak sustatzen dituztenak. Monumentuen gai honetan, alde batetik, iragan historikoko monumentuen harrera kritikoa behar da, elkarbizitza eta bakearen ikuspuntutik; eta bestetik, herritarrentzat monumentu biziak izateko bideratuta dauden ekimenak hartu behar dira, erreferentzia sinbolikoko lekuak izan daitezen, gatazketan integratzen duen elkarbizitzarako.

EAEko giza eskubide eta bake hezkuntzaren elkartearen foroa.

Bilbo, 2011ko ekainaren 17a

UDALERRIAK BIZIKIDETZAREN ALDE

EAEko udal ekintzarako jarraibide etikoak

1. Gure udalerriek askatasunean, justizian eta bakean bizikidetzaren sustatzeko guneak izan behar dute.
2. Gure udalerrietako bizikidetzaren bertako gatazken kudeaketa positiboa behar du.
3. Biktimek bizi izandako sufrikarioa da indarkeriaren eta horren ondorioen adierazpen nabariena.
4. Indarkeriaren kultura indargabetzeko ikuspegiak asmatu eta ekimenak diseinatu behar dira.
5. Gure udalerrietako konfrontazio politikoa kultura demokratikoan oinarritu behar da, hots, gatazka-egoera eraikitzailearen kulturean.
6. Eztabaida politikoa emaitzei buruzko kezkek eta amorraren estrategiak utzi eta alderdikeria ez den egoerak eta eztabaidatu daitezkeenak hartu behar du lekua.
7. Elkarbizitzarako hezkuntzak ekimen zuzenak eskatzen ditu gure udal instituzioen aldetik eta herritarren gizarte-erakundearen aldetik.
8. Elkarbizitzarako ekimenak plan integral eta sistematikoetan sartu behar dira, lehentasunezko beharretan eta erabiltzeko baliabideetan oinarrituta.
9. Gure gizartean identitateekin lotutako gatazka arintzeko faktorea da giza harremanen esperientzia.
10. Erabat garrantzitsua da ekimen espresibo-sinbolikoak laguntzea gure hirietan elkarbizitzarako gune bezala finkatzeko.

EUSKO JAURLARITZAREN EBAZPENAK

EBAZPENA, 2005eko uztailaren 26koa, Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako zuzendariarena, honen bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2005eko martxoaren 3ko Aginduaren babespean emandako diru-laguntzaren eta jasotako diru-kopuruen onuradunen zerrenda argitaratzen da (aipatutako aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko udalek garatutako bakearen aldeko heziketa-arloko programak eta ekimenak egiteko dirulaguntzak arautzen ditu).

<http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvvaci/es/bopv2/datos/2005/08/0504333a.pdf>

EBAZPENA, 2006ko irailaren 1ekoa, Giza Eskubideen zuzendariarena; honen bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren babespean emandako diru-laguntzaren eta jasotako diru-kopuruen onuradunen zerrenda argitaratzen da (aipatutako aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako Tokierakundeek garatutako bakearen aldeko heziketa-arloko programak eta ekimenak egiteko diru-laguntzak arautzen ditu).

<http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvvaci/es/bopv2/datos/2006/09/0604693a.pdf>

EBAZPENA, 2007ko abuztuaren 8koa, Giza Eskubideen zuzendariarena, honen bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2007ko martxoaren 14ko Aginduaren babespean emandako diru-laguntzaren eta jasotako diru-kopuruen onuradunen zerrenda argitaratzen da (aipatutako aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokierakundeek garatutako bakearen aldeko heziketa-arloko programak eta ekimenak egiteko diru-laguntzak arautzen ditu, 2007ko ekitaldian aplikatzeko).

<http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvvaci/es/bopv2/datos/2007/08/0704771a.pdf>

EBAZPENA, 2008ko urriaren 28koa, Giza Eskubideen zuzendariarena, honen bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2008ko maiatzaren 7ko Aginduaren babespean emandako diru-laguntzaren eta jasotako diru-kopuruen onuradunen zerrenda argitaratzen da (aipatutako aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako Toki-erakundeek garatutako bakearen aldeko heziketa-arloko programak eta ekimenak egiteko diru-laguntzak arautzen dituen, 2008ko ekitaldian aplikatzeko).

<http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvvaci/es/bopv2/datos/2008/11/0806565a.pdf>

EBAZPENA, 2009ko abuztuaren 6koa, Giza Eskubideen zuzendariarena; honen bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2009ko

otsailaren 18ko Aginduaren babespean emandako diru-laguntzen onuradunen eta jasotako diru-kopuruaren zerrenda argitaratzen da (Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek garatutako bakearen aldeko heziketa-arloko programak eta ekimenak egiteko diru-laguntzak arautzen ditu aipatutako aginduak, 2009ko ekitaldian aplikatzeko).

<http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvvaci/es/bopv2/datos/2009/08/0904632a.pdf>

EBAZPENA, 2010eko abuztuaren 2koa, Giza Eskubideen zuzendariarena, honen bidez, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuaren 2010eko martxoaren 25eko Aginduaren babespean emandako diru-laguntzaren eta jasotako diru-kopuruaren onuradunen zerrenda argitaratzen da (aipatutako aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako Toki-erakundeek garatutako bakearen aldeko heziketa-arloko programak eta ekimenak egiteko diru-laguntzak arautzen ditu, 2010eko ekitaldian aplikatzeko).

<http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvvaci/es/bopv2/datos/2010/09/1004353a.pdf>

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 8koa, Giza Eskubideen zuzendariarena, honen bidez, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuaren 2011ko martxoaren 22ko Aginduaren babespean emandako diru-laguntzaren eta jasotako diru-kopuruaren onuradunen zerrenda argitaratzen da (aipatutako aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako Toki-erakundeek garatutako Giza Eskubideen, Bizikidetasun Demokratikoaren eta Indarkeriaren Deslegitimazioaren arloko programak eta ekimenak egiteko diru-laguntzak arautzen ditu, 2011ko ekitaldian aplikatzeko).

<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/orders/201105877?track=1>

EBAZPENA, 2012ko irailaren 7koa, Giza Eskubideen zuzendariarena. Honen bidez, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuaren 2012ko martxoaren 7ko Aginduaren babespean emandako diru-laguntzen eta jasotako diru-kopuruaren onuradunen zerrenda argitaratzen da. Aipatutako aginduak oroimen historikoa berreskuratzeko jarduerak eta proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen deialdia egiten du eta diru-laguntza horien oinarri arautzaileak ezartzen ditu.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/09/1204322e.pdf>

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 9koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programa eta ekimenetarako laguntzak ebazten dituen.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2013/12/1305598e.shtml>

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 16, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek bake, bizikidetza eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programa eta ekimenetarako laguntzak ebazten dituena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/12/1405472e.shtml>

EBAZPENA, 2015eko ekainaren 19koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek bake, bizikidetza eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programa eta ekimenetarako laguntzak ebazten dituena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/07/1503111e.pdf>

EBAZPENA, 2016ko urriaren 18koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek bake, bizikidetza eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programa eta ekimenetarako laguntzen agindua.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/10/1604568e.shtml>

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN EBAZPENAK

Bakerako, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko proiektuak egiteko diru laguntzen deialdia (**2008**) ebaztea.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/boletin/asp/ViewRoot.asp?Action=Html&Item=0&X=1228120443>

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen eta udalez gaindiko erakundeen ardurapean bakerako, bizikide-tza-rako eta giza eskubideetarako hezkun-tza-ren inguruko proiektuak egiteko diru lagun-tzak emateko **2009**rako deialdia;

<https://ssl4.gipuzkoa.net/boletin/asp/ViewRoot.asp?Action=Html&Item=0&X=1228120650>

Bakerako, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko proiektuak egiteko diru laguntzen **2010**eko deialdiaren ebazpena.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2010/06/02/c1006513.pdf>

Bakerako, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko proiektuak egiteko diru laguntzen **2011**ko deialdiaren ebazpena.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2011/05/12/c1105472.pdf>

Bakerako, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko proiektuak egiteko diru laguntzen **2012**ko deialdiaren ebazpena.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2012/08/01/c1207497.pdf>

Bakerako, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko proiektuak egiteko diru laguntzen **2013**ko deialdiaren ebazpena.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2013/07/18/c1307046.pdf>

Bakerako, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko proiektuak egiteko diru laguntzen **2014**ko deialdiaren ebazpena.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/05/22/c1404753.pdf>

Bakerako, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko proiektuak egiteko diru laguntzen **2015**eko deialdiaren ebazpena.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/06/08/c1505375.pdf>

Bizikidetzaren eta giza eskubideen gaitan udal proiektuak gauzatzeko Gipuzkoako udalei zuzendutako diru aguntzen **2016.** urteko deialdiaren emakidak.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2016/06/03/c1603927.pdf>

GALDETEGIA

BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN INGURUKO PLAN, PROGRAMA ETA EKIMENEI BURUZKO IKERLANA EUSKAL AUTONOMÍA ERKIDEGOKO UDAL ESPARRUAN

Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen Foroa “Bake, bizikidetza eta giza eskubideen inguruko programa eta planak abiatzen dituzten euskal udalei buruzko ikerlana” eguneratzen ari da.

Xedea: Galdetegi honen helburua da bake, bizikidetza eta giza eskubideei buruzko udal jarduerak planifikatzerakoan eta abiatzerakoan, arlo horretako udal garrantzitsuenek dituzten aukera eta zailtasunak aztertzea da.

Nola bete eta bidali galdetegia: Galdetegia Word dokumentuan jaso da; beraz, galdera bakoitzaren ostean datorren hutsunea bete dezakezu.

Ez dugu mugarik ezarri erantzuterakoan. Behin amaituta, galdetegia helbide honetara bidali ahalko duzu: iaurrekoetxea@bakeola.org

Dokumentua **ekainaren 10a** baino lehen bidaltzea eskertuko genizuke. Zalantzarik izanez gero, aipatutako helbidera idatz dezakezu edo telefonoz deitu: 94.400.99.99 / 688.809.391 (Irantzu Aurrekoetxea).

Amaitzeko, adierazi nahi dizugu zure izena ez dela erabiliko, lan egiten duzun udalerrian izan ezik. Foroa, halaber, **datuen anonimotasuna eta konfidentzialtasuna mantentzera konprometitzen da.**

DATUAK JASOTZEKO FITXA:

HARREMANETARAKO PERTSONA:	
HARREMANETARAKO TELEFONOA:	
EMAIL-A:	
KARGUA:	

PROBINTZIA	
UDALERRIA EDO MANKOMUNITATEA	
JARDUERAK HASI ZIREN URTEA	

GALDERAK	ERABAT ADOS	NAHIKO ADOS	APUR BAT ADOS	BATERE ADOS	OHARRAK
ERAKUNDE PUBLIKOEN PAPERARI BURUZKO GALDERAK (EUSKO JAURLARITZA ETA FORU ALDUNDIAK)					
Bake, bizikidetza eta giza eskubideentzako finantzazio-ildoak nahikoak dira					
Emandako bitarteko ekonomikoak egokiak dira					
Koordinazio instituzionala egokia da					
Jarduerak garatzeko aurreikusitako epeak egokiak dira					
Burututako proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egokiak dira					
ZURE UDALERRIKO BIZIKIDETZA PLANARI BURUZKO GALDERAK					
Bizikidetza-plana erreferentzia da, eta bertatik sortzen dira zure udalerrian bizikidetza hobetzeko egiten diren jarduera guztiak					
Nire udalerriko bizikidetza-planak hainbat gai jorratzen ditu, bake, bizikidetza eta giza eskubideak esparruaren baitan (biolentzia, gatazkak, giza eskubideak, oroimen historikoa, bestelakoak)					
Bizikidetza-plana berrikusi eta gaurkotu egiten da aldizka (gutxienez hiru urterik behin)					
Bizikidetza-plana hainbat udal-sailek ezagutzen dute					
ZURE UDALERRIKO JARDUEREN DISEINU ETA ABITZEARI BURUZKO GALDERAK					
Esparru horretan jarduerak garatzen dituzten udal-sailak koordinatu egiten dira					
Egiten diren jarduerak udalerriko hainbat kolektiborentzat dira					
Egiten diren jardueren zabalkundea egokia da					
Udaleko lantalde teknikoak eta politikoak gaitasunak dituzte gai honetan					

GALDERAK	ERABAT ADOS	NAHIKOA ADOS	APUR BAT ADOS	BATERE ADOS	OHARRAK
Jarduerak garatzeko, gai honetan adituak diren erakundeekin laguntza izaten da.					
Garatutako jardueren jarraipena eta ebaluazioa egokiak dira					
Oro har, ekimen hauen ezarpenak udalerriko bizikidetza hobetu dute					
Udalerrian garatutako jardueretik asebetetze-maila positiboa da					

Instituzioen papera, bake, bizikidetza eta giza eskubideei buruzko programak eta planak sustatzerakoan eta udalaren papera bizikidetza eta giza eskubideei buruzko programak eta planak diseinatzerakoan eta abiatzerakoan
Zein hiru alde uste duzu beharrezkoak direla mantentzea eta zein hiru alde uste duzu hobetu behar direla? (Arrazoituz erantzuna)

ERAKUNDEEN PAPER (EUSKO JAURLARITZA ETA FORU ALDUNDIAK):

MANTENDU BEHARREKO ALDEAK

- 1.
- 2.
- 3.

HOBETU BEHARREKO ALDEAK

- 1.
- 2.
- 3.

UDALAREN PAPER:

MANTENDU BEHARREKO ALDEAK

- 1.
- 2.
- 3.

HOBETU BEHARREKO ALDEAK

- 1.
- 2.
- 3.